ADMINISTRAZIO-KLAUSULA BEREZIEN AGIRIA, PROZEDURA IREKIAREN BIDEZKO LIZITAZIOA ARAUTUKO DUENA, 2026AN BASONET SARE ZIENTIFIKOKO LURSAIL MULTZO BAT NEURTZEKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO, SUDOE USE4FOREST PROIEKTUAREN ESPARRUAN

1. KONTRATUAREN XEDEA

Prozedura honen xedea da HAZIk kontratista bat hautatzea, Administrazio Klausula Berezien Agiri honen Azalean (aurrerantzean, Azala) 1. puntuan adierazitako zerbitzuak eman ditzan.

Aipatutako zerbitzuak Agiri honetan, Baldintza Teknikoen Agirian eta kontratistaren proposamenean ezarritakoaren arabera emango dira.

Kontratua loteetan banatuta hainbat zati independentetan gauzatzea aurreikusten bada, Azalaren 1. puntuan adieraziko dira: kontratua osatzen duten lote zehatzak; hala badagokio, lizitatzaile berak aurkez ditzakeen lote kopurua; hala badagokio, lizitatzaile bakoitzari esleitu ahal zaizkion lote kopurua; eta kasu bakoitzean zehazten diren gainerako alderdiak.

Kontratuaren CPV kodea Azalaren 1. puntuan adierazten da.

2. ENTITATE KONTRATATZAILEA ETA KONTRATAZIO-ORGANOA

Entitate kontratatzailea HAZI da (aurrerantzean, entitate kontratatzailea).

Kontratazio-organoa Azalaren 2. puntuan adierazitakoa izango da, eta hark, hala badagokio eta aplikatzekoa den zuzenbide pribatuaren arauen arabera, egoki iritzitako pertsonei berariaz ahalmena eman ahal izango die kontratuarekin lotutako jarduketa zehatzak gauzatzeko.

3. ESLEIPEN-PROZEDURA

Kontratua prozedura ireki bidez esleituko zaio kalitate-prezio erlazio onena eskaintzen duen lizitatzaileari, Agiri honetan ezarritako esleipen-irizpideen arabera (aurrerantzean, eskaintzarik onena).

4. ALDAERAK

Lizitatzaileek aldaerak aurkezteko aukera Azalaren 3. puntuan adieraziko da, hala badagokio.

Aldaerak onartzen badira, Azalaren 3. puntuan zehaztuko dira horien **gutxieneko**

baldintzak, modalitateak eta ezaugarriak, baita kontratuaren xedearekin duten lotura ere.

5. KONTRATU-DOKUMENTAZIOA

Ondoko dokumentuek kontratu-izaera izango dute:

Administrazio Klausula Berezien Agiri hau eta haren Azala.
Baldintza Teknikoen Agiria.
Esleipendunak aurkezten duen eskaintza.
Azalaren 4. puntuan adierazten den gainerako dokumentazioa.

Dokumentu horiek esleipendunak sinatu beharko ditu kontratua formalizatzeko unean, horiekin ados dagoela frogatzeko.

6. KONTRATUAREN IRAUPENA

Kontratuaren iraupena Azalaren 5. puntuan adierazitakoa izango da.

7. ELEMENTU EKONOMIKOAK

7.1. LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA ETA KONTRATUAREN PREZIOA

Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua Azalaren 6.1 puntuan adierazten da.

Era berean, kontratuaren prezioa Azalaren 6.1 puntuan zehazten da.

Kontratuaren prezio horrek kontratua gauzatzeko beharrezko kostu guztiak barne hartuko ditu; besteak beste, adierazpen hutsez eta ez mugatzaile gisa, honako hauek:

Kontratua gauzatzeko beharrezko zuzeneko eta zeharkako kostu guztiak, Agiri honetan eta Baldintza Teknikoen Agirian aurreikusitakoaren arabera; ez da onartuko ondoren fakturatzea azken prezioan aurrez kontuan hartu behar ziren kontzeptuengatik.
Kontratua gauzatzearekin lotutako edozein kontzeptu eta kontratua betetzeko erabilitako langileei dagozkien gastu guztiak (soldatak eta Gizarte Segurantza, oporrak eta aparteko ordainsariak, gaueko eta jai-egunetako lanak, baja edo gaixotasunagatiko ordezkapenak, istripu-aseguru indibidualak, etab.), bai eta zerga guztiak ere (BEZa izan ezik), aseguruak, lizentziak, garraio- eta joan-etorri gastuak, baimenak eta gainerako gastu orokorrak.
Kontratua gauzatzeko kontratistak erabili behar dituen edozein baliabide, tresna, ibilgailu, ekipamendu, tresneria informatiko eta aparatu.
Entitate kontratatzaileak kontratua behar bezala garatu eta betetzeko zehazten **dituen laneko edo informazioko bilera guztietara joatea.**

Azalaren 6.1 puntuan zerrendatutako gainerako kontzeptuak.
7.2. KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA

Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen (aurrerantzean, SPKL) 101. artikuluaren ondorioetarako, kontratuaren balio zenbatetsia Azalaren 6.2 puntuan adierazitako zenbatekora iristen da.

Balio zenbatetsi hori SPKLren 101. artikuluan xedatutakoaren arabera kalkulatu da.

Aurreikuspen horrek ez du entitate kontratatzailearentzat inolako konpromiso zehatzik sortzen.

8. PREZIOAREN ORDAINKETA

Kontratuaren prezioa lana amaitzean ordainduko da, kontratistak dagokion faktura aurkeztu ondoren.

Kontratistari ordaindu beharreko zenbatekoa kalkulatzeko, kontratistak eskainitako unitateko prezioari benetan emandako unitateak aplikatuko zaizkio.

Kontratistak faktura xehatua igorri beharko du zerbitzuei dagokien hilabetea amaitu eta hamabost egun naturaleko epean.

Entitate kontratatzaileak aipatutako zenbatekoa lana amaitu eta 30 egun naturaleko epean ordainduko du, baldin eta faktura ezarritako epean igorri bada eta entitate kontratatzailearen oniritzia badu.

Ez da ordainduko Agiri honetan aurreikusitako kontratu-xedetik kanpo egindako lan edo zerbitzurik, ezta, hala badagokio, entitate kontratatzaileak aurrez eskatu ez duenik ere.

9. PREZIOEN BERRIKUSPENA

Azalaren 8. puntuan xedatutakoa aplikatuko da.

10. PUBLIZITATEA

Honako hauek argitaratuko dira entitate kontratatzailearen kontratatzaile-profilean:

Lizitazio-deialdiaren iragarkia.
Kontratuaren esleipen-iragarkia.
Kontratua formalizatzearen iragarkia.
SPKLren 63. artikuluan zerrendatutako gainerako informazioa.

Entitate kontratatzailearen kontratatzaile-profilerako sarbidea honako web-orri honen bidez egingo da:
www.contratacion.euskadi.eus

Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 63. artikuluan eta harekin bat datozen xedapenetan ezarritakoaren arabera, kontratazio-organoaren kontratatzaile-profilean egiten diren argitalpenek jakinarazpen ofizialaren ondorioak izango dituzte lizitatzaile eta gainerako interesdun guztientzat, eta, hala badagokio, banakako jakinarazpenak ordeztuko dituzte, berariaz bestelakorik xedatzen ez bada.

11. BEHIN BETIKO BERMEA

Lote bakoitzean eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaileak behin betiko bermea eratu beharko du, Azalaren 9. puntuan adierazitako zenbatekoan.

Eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaileak aipatutako behin betiko bermea eratu dela egiaztatu beharko du, Kontratazio Organoak horretarako egindako errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita 10 egun balioduneko epean.

Aipatutako behin betiko bermeak SPKLren 110. artikuluan zerrendatutako kontzeptuei erantzungo die.

Bermea SPKLren 108. artikuluan aurreikusitako moduetako edozeinetan eratu ahal izango da, eta ez da beharrezkoa izango Gordailuen Kutxa Orokorrean eratzea.

Abal bidez eratzen bada, Agiri honen I. eranskin gisa jasotako ereduari egokituko zaio.

Bermea eratu dela bitarteko elektronikoen bidez egiaztatu ahal izango da.

Behin betiko bermearen kontura kontratistari eskagarri zaizkion penalizazioak edo kalte-ordainak egiten badira, kontratistak bermea berritu edo handitu beharko du dagokion zenbatekoan, exekuzioa egin eta hamabost egun naturaleko epean; bestela, kontratua suntsiarazteko arrazoia izango da.

Kontratua aldatzearen ondorioz kontratuaren prezioa aldatzen bada, kontratistak behin betiko bermea egokitu beharko du aldatutako prezio berriarekin behar bezalako proportzioa izan dezan. Bermea aldatzeko epea hamabost egun naturalekoa izango da, aldaketa-erabakia jakinarazten zaion egunetik zenbatzen hasita.

Bermea SPKLren 111. artikuluan xedatutakoaren arabera itzuliko da, berme-epea igaro eta kontratistak kontratu-betebehar guztiak bete ondoren.

Bermea entitate kontratatzailearen aldeko txostena eman ondoren itzuliko da.

Klausula honetan aurreikusi gabeko guztian, SPKLren 106. artikulutik aurrerakoetan ezarritakoa aplikatuko da.

12. KONTRATATZEKO GAITASUNA

Entitate kontratatzailearekin kontratatu ahal izango dute jarduteko gaitasun osoa duten pertsona fisiko edo juridiko espainiarrek nahiz atzerritarrek, baldin eta kontratatzeko debekuren batean sartuta ez badaude eta beren kaudimena egiaztatzen badute.

Lizitatzaileek, halaber, kontratuaren xede diren prestazioak egiteko exijitu daitekeen enpresa- edo lanbide-gaikuntza izan beharko dute, hala badagokio.

Pertsona juridikoak kontratuaren esleipendun izan ahal izango dira soilik kontratuaren prestazioak beren estatutuen edo fundazio-arauen arabera dagozkien helburuen, xedearen edo jarduera-esparruaren barruan badaude.

Europar Batasuneko estatu kideetako edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duten estatuetako enpresa ez-espainiarrek ere kontratatzeko gaitasuna izango dute, baldin eta ezarrita dauden estatuko legeriaren arabera dagokion prestazioa egiteko gaituta badaude; kasu horretan SPKLren 67. artikuluan aurreikusitakoa aplikatuko da.

Enpresa horiek ezarrita dauden estatuko legeriak prestazioa egiteko baimen berezi bat edo erakunde jakin bateko kide izatea eskatzen badu, baldintza hori betetzen dutela egiaztatu beharko dute.

Espainiak nazioarteko akordioetatik eratorritako betebeharrak aplikatzeari kalterik egin gabe, Europar Batasunekoak ez diren estatuetako edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duten estatuetako pertsona fisiko edo juridikoek txosten bidez justifikatu beharko dute atzerriko enpresaren jatorrizko estatuak Espainiako enpresei ere aukera ematen diela administrazioarekin eta SPKLren 3. artikuluan zerrendatutakoen antzeko sektore publikoko enteekin kontratatzeko, funtsean modu baliokidean. Txosten hori Espainiak atzerrian duen Ekonomia eta Merkataritza Bulego eskudunak egingo du, eta aurkezten den dokumentazioarekin batera aurkeztuko da.

13. PROPOSAMENAK ETA DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA

13.1. AGIRIETARAKO ETA GAINERAKO DOKUMENTAZIO OSAGARRIRAKO SARBIDEA

Agiriak eta gainerako dokumentazio osagarria lizitazio-iragarkia argitaratzen den egunetik bertatik eta proposamenak aurkezteko epe osoan egongo dira eskuragarri

entitate kontratatzailearen kontratatzaile-profilean.

Agiriak eta gainerako dokumentazio osagarria bitarteko ez-elektronikoen bidez eskuratzeko aukera ematen den kasuetan, hori Azalaren 11.1 puntuan adieraziko da.

13.2. AURKEZPEN-BITARTEKOAK

Proposamenak bitarteko elektronikoak erabiliz aurkeztuko dira, SPKLren hamabosgarren xedapen gehigarrian ezarritako betekizunen arabera, salbu eta SPKLren aipatutako xedapen gehigarriaren 3. apartatuan aurreikusitako inguruabarren bat gertatzen bada eta hori Azalaren 11.1 puntuan adierazten bada.

Proposamenak elektronikoki aurkezteko beharrezko informazioa eta zehaztapen teknikoak —zifratzea eta data baliozkotzea barne— Eusko Jaurlaritzaren Lizitazio Elektronikoaren aplikazioaren webgunean daude eskuragarri, helbide honetan: https://apps.euskadi.eus/appcont/lizitazioa

Eskaintzak bitarteko elektronikoen bidez bidaltzea bi fasetan egin ahal izango da: lehenik, eskaintzaren hatz-marka elektronikoa transmitituz; haren harrerarekin eskaintza aurkeztutzat joko da ondorio guztietarako; eta, ondoren, eskaintza bera gehienez 24 orduko epean bidaliz. Bigarren bidalketa hori ez bada adierazitako epean egiten, eskaintza erretiratutzat joko da.

Eskaintzaren hatz-marka elektronikotzat hartzen da haren sorrera-prozesuak eskaintzaren edukiarekin lotura argia eta zalantzarik gabea bermatzen duen datu-multzoa, eta haren osotasuna bermatuz edukiaren balizko aldaketak detektatzeko aukera ematen duena. Espedientean sartu behar diren dokumentuen kopia elektronikoek administrazio-prozedura erkidearen arloan indarrean dagoen legerian ezarritakoa bete beharko dute, eta legeria horretan aurreikusitako ondorioak izango dituzte.

13.3. GUTUN-AZALEN EDO ARTXIBO ELEKTRONIKOEN EDUKIA

Lizitatzaileen proposamenek Agiri honetara eta haren Azalera, Baldintza Teknikoen Agirira eta gainerako kontratu-dokumentaziora egokitu beharko dute, eta proposamena aurkezteak berekin ekarriko du lizitatzaileak klausula guztien edukia baldintzarik gabe onartzea, inolako salbuespen edo erreserbarik gabe.

Gutun-azal edo artxibo elektroniko bakoitzak jarraian adierazten diren dokumentuak izango ditu, eta bertan jasotako dokumentuen zerrenda zenbakiduna bilduko du.

Gutun-azalak honela izendatuko dira: 1. Gutun-azala, 2. Gutun-azala eta 3. Gutun-azala.

1. Gutun-azala. “AURRETIAZKO BETEKIZUNAK BETETZEARI BURUZKO DOKUMENTAZIOA”

Lizitatzaileek honako dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

1. Erantzukizunpeko adierazpena, Europako kontratazio-agiri bakarraren formularioari —aurrerantzean, EKAB— egokitua; formulario hori Agiri honi III. eranskin gisa eransten zaio, eta jarraian adierazitakoaren arabera bete beharko da:

EKAB bete beharko da Batzordearen 2016ko urtarrilaren 5eko 2016/7 (EB) Betearazpen Erregelamenduaren I. eranskinean jasotako jarraibideen arabera; erregelamendu horren bidez Europako kontratazio-agiri bakarraren formulario normalizatua ezartzen da.

EKABen “IV. zatia: Hautaketa-irizpideak” atalari dagokionez, lizitatzaileek A atala baino ez dute bete beharko: “Hautaketa-irizpide guztiei buruzko adierazpen globala”.

Lizitatzaileak, Agiri honen 12. klausulan xedatutakoaren arabera, beste erakunde batzuen kaudimenaz eta/edo baliabideez baliatzen direnean, erakunde horietako bakoitzak ere erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko du. Bertan, EKABen II. zatiko A atalean (“Operadore ekonomikoari buruzko informazioa”) eta B atalean (“Operadore ekonomikoaren ordezkariei buruzko informazioa”), bai eta III. zatian ere, eskatzen den informazioa jaso beharko da.

Enpresaburu batzuk aldi baterako enpresa-elkarte batean bilduta aurkezten diren kasu guztietan, parte hartzen duen enpresa bakoitzeko erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztuko da, eta bertan EKABen II.etik V.era bitarteko zatietan eskatzen den informazioa jasoko da.

2. Aldi baterako enpresa-elkarte batean bilduta aurkeztu nahi duten enpresaburuek elkartea osatzen dutenen izenak eta inguruabarrak adierazi beharko dituzte, bai eta bakoitzaren partaidetza ere, eta esleipendun gertatuz gero aldi baterako enpresa-elkartea formalki eratzeko konpromisoa hartzen dutela ere. Aldi baterako enpresa-elkarte batean bilduta aurkezten diren enpresaburuak solidarioki lotuta geratuko dira, eta elkartearen ordezkari edo ahaldun bakar bat izendatu beharko dute, kontratutik eratorritako eskubideak baliatzeko eta betebeharrak betetzeko ahalmen nahikoekin, kontratua azkendu arte; horrek ez du eragotziko zenbateko handiko kobrantza eta ordainketetarako ahalorde mankomunatuak ematea.

3. Atzerriko enpresek berariazko adierazpena aurkeztu beharko dute Espainiako edozein jurisdikziotako epaitegi eta auzitegien menpe jartzen direla adierazteko, kontratutik zuzenean edo zeharka sor daitezkeen gorabehera guztietarako, eta, hala badagokio, lizitatzaileari legozkiokeen atzerriko jurisdikzio-foruei uko eginez.

4. Jakinarazpenak jasotzeko lehentasunezko bitartekoa izendatzea, Agiri honi IV. eranskin gisa erantsitako ereduaren arabera.

OHARRA:

Entitate kontratatzaileak lizitatzaileei eskatu ahal izango die egiaztagiri guztiak edo haietako batzuk aurkezteko, baldin eta 1. puntuan adierazitako adierazpenaren indarraldiari edo fidagarritasunari buruzko arrazoizko zalantzak badaude edo prozeduraren garapen egokirako beharrezkoa bada.

Aurrekoa gorabehera, enpresaburua Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean, Euskadiko Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialean edo Europar Batasuneko estatu kide bateko datu-base nazionalean inskribatuta badago —hala nola enpresaren espediente birtual batean, dokumentuak elektronikoki biltegiratzeko sistema batean edo aurresailkapen-sistema batean—, eta horiek aipatutako organoentzat doan eskuragarri badaude, ez du zertan aurkeztu aipatutako erregistroetan inskribatutako datuen egiaztagiririk edo bestelako frogagiririk.

2. Gutun-azala. "BALIO-JUDIZIO BATEN MENDEKO KUANTIFIKAZIOA DUTEN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA"

Lizitatzaileek Azalaren 11.2 puntuan adierazitako dokumentazioa aurkeztu beharko dute gutun-azal honetan.

Lizitatzaileak arreta berezia jarri beharko du gutun-azal honetan sartu beharreko dokumentazioa prestatzerakoan, edukiari buruz emandako jarraibideetara egokituz. Era berean, ezin izango da eskaintzaren alderdi ekonomikoei buruz orientatu edo informazioa eman dezakeen erreferentziarik egin.

Printzipio horiek urratzen dituzten eskaintzak baztertu eta prozeduratik kanpo utziko dira.

Entitate kontratatzaileak, halaber, egokitzat jotzen dituen egiaztapen-lanak egiteko edo lizitatzaileek emandako informazioaren egiazkotasuna egiaztatzeko beharrezkotzat jotzen duen dokumentazio osagarri guztia eskatzeko eskubidea gordetzen du.

3. Gutun-azala. "FORMULEN BIDEZ BALORATU DAITEZKEEN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA"

Lizitatzaileek formulen bidez balora daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa aurkeztu beharko dute, Agiri honi V. eranskin gisa erantsitako ereduari egokituta.

Entitate kontratatzaileak egiaztatu ahal izango du, bai esleipena egin aurretik eta

ondoren, bai kontratuaren indarraldian zehar ere, 1., 2. eta 3. gutun-azaletan jasotako dokumentuen edukia egiazkoa dela; ulertuko da enpresak aurkeztutako datu edo inguruabarren faltsutasuna kontratua deuseztatzeko arrazoia izan daitekeela, kontratistari egotz dakiokeen ez-betetzeagatik.

14. ESLEIPEN-IRIZPIDEAK

Esleipen-irizpideak, dagokien ponderazioarekin batera, Azalaren 12. puntuan adierazitakoak izango dira.

15. EBALUAZIO-BATZORDEA

Kontratazio Organoak Azalaren 13. puntuan adierazitako kideek osatutako Ebaluazio Batzorde baten laguntza izango du.

16. PROPOSAMENEN IREKIERA

Ebaluazio Batzordeak aurretiaz kalifikatuko du 1. Gutun-azalean ("Aurreko betekizunak betetzeari buruzko dokumentazioa") jasotako dokumentazioa, behar bezala eta epe barruan aurkeztutakoa. Aurkeztutako dokumentazioan zuzendu daitezkeen akatsak antzemanez gero, entitate kontratatzaileak hiru egun naturaleko epea emango dio lizitatzaileari akats horiek zuzentzeko.

Ondoren, 2. Gutun-azala ("Balio-judizio baten mendeko kuantifikazioa duten irizpideei buruzko dokumentazioa") irekiko da, bertan jasotako dokumentazioa aztertu eta baloratzeko.

Balio-judizio baten mendeko kuantifikazioa duten irizpideei formulen bidez balora daitezkeen irizpideei baino ponderazio handiagoa ematen bazaie, balio-judizio baten mendeko kuantifikazioa duten irizpideen balorazioa Azalaren 14. puntuan adierazitako kideek osatutako batzorde bati dagokio.

2.Gutun-azalean jasotako dokumentazioa aztertu eta baloratu ondoren, 3. Gutun-azala ("Formulen bidez balora daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa") irekiko da.

17. KONTRATUAREN ESLEIPENA

Esleipenerako hautatutako lizitatzailea aukeratzeko, Kontratazio Organoak, oro har, Ebaluazio Batzordeak egindako proposamenera egokitu beharko du. Bestela, Kontratazio Organoak proposamenetik aldentzeko erabakia arrazoitu beharko du, eta, hala badagokio, proposamenen behin betiko sailkapena egingo du.

Kontratazio Organoak Ebaluazio Batzordearen proposamena onartu ondoren, entitate kontratatzaileak eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaileari eskatuko dio,

errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita hamar egun balioduneko epean, honako dokumentazio hau aurkez dezala:

1.

Eskaintzak aurkezteko azken egunean entitate kontratatzailearekin kontratatzeko legez ezarritako baldintza guztiak betetzen direla egiaztatzen duen dokumentazioa, bai eta Agiri honen 12. klausulan eskatutako gaitasun-, kaudimen- eta kontratatzeko debekurik ezaren betekizun guztiak ere, jarraian adierazitako moduan.

Proposamena aldi baterako enpresa-elkarte batean bilduta aurkeztu nahi duten enpresaburuek egin badute, aipatutako dokumentazioak elkartea osatuko duten enpresa guztiei buruzkoa izan beharko du.

(i) Lizitatzailearen nortasuna eta jarduteko gaitasuna egiaztatzen duten dokumentuak eta, hala badagokio, haren ordezkaritza egiaztatzen dutenak:
Pertsona juridiko diren enpresaburuen jarduteko gaitasuna eraketa-eskrituraren edo dokumentuaren, estatutuen edo fundazio-egintzaren bidez egiaztatuko da; dokumentu horietan beren jarduera arautzen duten arauak jaso beharko dira, eta, hala badagokio, dagokion erregistro publikoan behar bezala inskribatuta egon beharko dute, kasuan kasuko pertsona juridiko motaren arabera.
Europar Batasuneko estatu kideetako nazionalitatea duten enpresaburu ez-espainiarren jarduteko gaitasuna egiaztatuko da ezarrita dauden estatuko legeriarekin bat datorren erregistroan inskribatuta egotearen bidez, edo zinpeko adierazpen edo ziurtagiri baten bidez, aplikatu beharreko xedapen komunitarioekin bat etorriz.
Gainerako atzerriko enpresaburuen jarduteko gaitasuna Espainiak dagokion estatuan duen Ordezkaritza Diplomatikoko edo enpresaren egoitza dagoen lurralde-eremuko Kontsul Bulegoko txosten baten bidez egiaztatuko da. Txosten horren bidez justifikatu beharko dute atzerriko enpresaren jatorrizko estatuak Espainiako enpresei ere aukera ematen diela Administrazioarekin eta SPKLren 3. artikuluan zerrendatutakoen antzeko sektore publikoko ente, organismo edo erakundeekin kontratatzeko, funtsean modu baliokidean.
Pertsona fisiko diren enpresaburuen jarduteko gaitasuna Nortasun Agiri Nazionalaren edo dagokien estatuko baliokidearen bidez egiaztatuko da.
Beste baten izenean agertzen edo proposamenak sinatzen dituztenek Nortasun Agiri Nazionalaren kopia aurkeztuko dute, bai eta horretarako ahalorde nahikoa ere. Enpresa pertsona juridikoa bada, ahalordea Merkataritza Erregistroan inskribatuta egon beharko da, Merkataritza Erregistroaren Erregelamenduaren 94. artikuluan aurreikusitakoaren arabera hala eskatzen denean edo, hala badagokio, dagokion erregistro publikoan, kasuan kasuko pertsona juridiko motaren arabera.

Euskadiko Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialean edo Estatuko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean inskribatuta dauden lizitatzaileek erregistroaren arduradun den letraduak emandako indarreko inskripzio-

ziurtagiriaren kopia aurkeztu ahal izango dute atal honetan eskatutako dokumentazioaren ordez. Inskripzio-ziurtagiria lizitatzaileak sinatutako erantzukizunpeko adierazpen batekin batera aurkeztu beharko da, dokumentuan jasotako inguruabarrak aldatu ez direla adierazteko.

(ii) Agiri honen 12. klausulan eskatutako kaudimen ekonomiko eta finantzarioa eta gaitasun tekniko edo profesionala egiaztatzen duen dokumentazioa
- Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa.

Hala badagokio, lizitatzailearen urteko negozio-bolumena honako hauen bidez egiaztatuko da:

• Merkataritza Erregistroan onartutako eta gordailututako urteko kontuak, enpresaburua erregistro horretan inskribatuta badago; bestela, inskribatuta egon behar duen erregistro ofizialean gordailututakoak. Merkataritza Erregistroan inskribatuta ez dauden banakako enpresaburuek beren urteko negozio-bolumena egiaztatuko dute Merkataritza Erregistroak legeztatutako inbentario-liburuen eta urteko kontuen bidez.

• Lizitatzaileak sinatutako erantzukizunpeko adierazpena, lizitatzailearen negozio-bolumena adieraziz.

- Kaudimen tekniko edo profesionala.

Hala badagokio, eskatutako kaudimena azken hiru urteetan egindako zerbitzu edo lanen zerrenda baten bidez egiaztatuko da; bertan zenbatekoa, data eta hartzailea —publikoa edo pribatua— adieraziko dira. Aipatutako zerbitzu edo lanak egiaztatuko dira organo eskudunak emandako edo ikus-onetsitako ziurtagirien bidez, hartzailea sektore publikoko erakunde bat denean; hartzailea subjektu pribatu bat denean, hark emandako ziurtagiri baten bidez edo, ziurtagiri hori ezean, lizitatzailearen adierazpen baten bidez, prestazioa egin dela egiaztatzen duten haren esku dauden dokumentuekin batera.

Kontratista sortu berriko enpresa denean —hau da, bost urte baino gutxiagoko antzinatasuna duenean—, haren kaudimen teknikoa SPKLren 90.1 artikuluko b) eta i) letretan aipatzen diren bitartekoetako baten edo batzuen bidez egiaztatuko da, eta ez da inolaz ere aplikatuko artikulu bereko a) letran ezarritakoa, zerbitzu kopuru jakin baten exekuzioari buruzkoa.

- Sailkapena.

Hala badagokio, sailkapena organo eskudunak emandako ziurtagiri baten bidez egiaztatuko da, lizitatzailearen erantzukizunpeko adierazpen batekin batera; bertan adierazi beharko da ziurtagiriak indarrean jarraitzen duela eta bertan jasotako inguruabarrak ez direla aldatu. Adierazpen hori berriz egin beharko da lizitatzailea

esleipendun gertatzen bada, kontratua formalizatzen den dokumentuan.

Ziurtagiriak egiaztatu beharko du lizitatzailea zehaztutako talde eta azpitaldean sailkatuta dagoela, aipatutako kategoriaren pareko edo goragoko kategorian.

Ziurtagiri horrek klausula honetako 1. apartatuko (i) atalean aipatutako inguruabarrak ere egiaztatu ahal izango ditu; hau da, lizitatzailearen nortasuna eta jarduteko gaitasuna eta, hala badagokio, haren ordezkaritza.

(iii)

Lizitatzailea SPKLren 71. artikuluan ezarritako kontratatzeko debekuetako batean ere sartuta ez dagoela adierazten duen erantzukizunpeko adierazpena.

(iv)

Azalaren 10. puntuan, hala badagokio, adierazten diren betekizun espezifikoak betetzen direla egiaztatzen duen dokumentazioa.

2.

Hala badagokio, kontratuari atxikitzeko konprometitutako giza baliabideak eta baliabide materialak benetan erabilgarri daudela egiaztatzen duen dokumentazioa.

(i)

Kontratua gauzatzera atxikitzeko konprometitutako giza baliabideei dagokienez, hala badagokio, hautatutako lizitatzaileak honako dokumentazio hau aurkeztu beharko du:

Kontratua gauzatzera atxikitako talde osoaren identifikazio izenduna, curriculum vitae fitxekin batera; fitxa horietan eskatutako betekizunak betetzen direla egiaztatu beharko da:
Titulazio akademiko ofiziala.
Dagokion arloko esperientzia.
Entitate kontratatzaileak, hala badagokio, eska dezakeen beste edozein alderdi.
Aipatutako giza baliabide guztiak benetan erabilgarri daudela egiaztatzen duen dokumentazioa.

Adierazten da ezen, datu-babesaren arloan aplikatzekoa den araudian aurreikusitakoarekin bat etorriz eta giza baliabideei buruzko aipatutako dokumentazioan jasotako informazioaren izaera kontuan hartuta, (i) informazio hori biltzea eta erabiltzea lizitatzaile horrek Tratamenduaren Arduradun gisa egindako datu-tratamendua izango dela; eta (ii) klausula honetan aurreikusitakoa betez entitate kontratatzaileari ematea datu-komunikazio bat izango dela, lagatzaile gisa.

Ondorio horietarako, hautatutako lizitatzaileak aurreko paragrafoan aipatutako datuen tratamenduari eta komunikazioari dagokienez datu-babesaren arloan aplikatzekoa den arauditik eratortzen zaizkion betebeharrak bete beharko ditu. Bereziki, eta Tratamenduaren Arduradun gisa bete behar dituen gainerako betebeharrak alde batera utzi gabe, hautatutako lizitatzaileak interesdunen baimen informatua lortu beharko du, bere erantzukizun esklusibopean, aipatutako datu-komunikazioa ahalbidetzeko; eta hori behar bezala egiaztatu beharko dio entitate kontratatzaileari, horretarako eskatzen zaionean.

Hizkera sexistarik ez erabiltzea sustatuko da, eta sexu-, rol- eta genero-identitateen dibertsifikazioa bultzatuko da.

Berdintasun-planari dagokionez, 50 langile edo gehiago dituzten enpresek berdintasun-plan bat izan beharko dute nahitaez; halaber, lan-agintaritzak ezarritako zehapen baten ondorioz edo aplikatzekoa den hitzarmen kolektiboak hala ezartzen duelako behartuta dauden enpresek ere bai (3/2007 LOren 45. art.; 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 22. art., martxoaren 16koa).

Zerbitzua emateak enpresa esleipendunak kontratua gauzatzeko jartzen duen langileriaren eta herritarren arteko harreman zuzena badakar, enpresa horrek bermatu beharko du herritarrekiko harremanak dakartzaten zereginak egiteko zerbitzura jartzen dituen pertsonek euskaraz eta gaztelaniaz beren eginkizunak behar bezala garatzeko gaitasun nahikoa dutela. Hori guztia, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzeko otsailaren 22ko 19/2024 Dekretuaren 13.1 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz.

Esleipendunak une oro errespetatu beharko du maila normatibo desberdinetan (erkidegokoa, estatukoa, autonomikoa eta tokikoa) aplikatzekoa den legeria, bai lanak hastean indarrean dagoena, bai kontratuaren indarraldian zehar aldarrikatu eta aplikatzekoa izan daitekeena; horrenbestez, kontratuan aurreikusitako lanen garapenean eragina izan dezaketen ingurumen-betekizunak ezagutu beharko ditu. Era berean, bere baliabideak modu eraginkorragoan erabiliko ditu, ingurumen-inpaktu txikiena bilatuz.

Agiri honetan, Azalean eta/edo gai horretan aplikatzekoa den legerian aurreikusitakoaren arabera datu-babesaren arloan bete behar dituen betebehar guztiak betetzea eta behar bezala egiaztatzea.
Azalaren 16. puntuan, hala badagokio eta berariaz, adierazten diren betebeharrak betetzea.

Klausula honetan eta Azalaren 16. puntuan aurreikusitako betebeharrak funtsezko kontratu-betebeharrak izango dira SPKLren 211.f) artikuluan aurreikusitako ondorioetarako; beraz, horiek ez betetzea kontratua suntsiarazteko arrazoia izango da,

entitate kontratatzailearen borondatez.

18. DATU PERTSONALEN BABESA

Kontratistak bete beharko ditu Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan —datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoen babesa arautzen duena (aurrerantzean, DBEO)— eta kontratuaren indarraldian aplikatzekoa den datu-babesaren arloko gainerako araudian aurreikusitako betebeharrak, bere jardueren esparruan eta bere kontura eta erabakiz egiten dituen datu pertsonalen tratamenduei dagokienez, tratamendu horren arduradun gisa.

Aipatutako betebeharra ezartzen da, hala badagokio, Azalaren 17. puntuan entitate kontratatzailearen kontura datu pertsonalen tratamenduari buruz berariaz ezartzen denari kalterik egin gabe.

Lizitatzaileen ordezkari diren pertsona fisikoen identifikazio- eta harremanetarako datu pertsonalak, bai eta zerbitzua emateko behar diren lan-taldeetako kide diren pertsonen datuak ere, eta, hala badagokio, kontratuaren xede diren jarduerak gauzatzeko beharrezkoa den datu horien lagapena, haien arteko kontratu-harreman juridikoaren oinarrian kudeatuko dira, Datuak Babesteko 679/2016 (EB) Erregelamendu Orokorraren 6.1.b) artikuluan aurreikusitako datu-tratamendurako gaitzen duen titulu gisa, bai eta arau bereko 6.1.c) artikuluan aurreikusitako lege-betebeharrak betetze aldera ere.

19. KONFIDENTZIALTASUNA ETA SEKRETU-BETEBEHARRA

Informazio publikoa eskuratzearen arloan indarrean dagoen legerian aurreikusitakoari eta SPKLn esleipenaren publizitateari eta hautagaiei eta lizitatzaileei eman beharreko informazioari buruz jasotako xedapenei kalterik egin gabe, entitate kontratatzaileak ezin izango du lizitatzaileek beren eskaintza aurkeztean konfidentzialtzat jo duten informazioa zabaldu. Konfidentzialtasunak, besteak beste, sekretu tekniko edo komertzialak, eskaintzen alderdi konfidentzialak eta edukia lehia faltsutzeko erabil daitekeen beste edozein informazio hartzen ditu barne, bai lizitazio-prozedura honetan, bai ondorengo beste batzuetan.

Kontratistak errespetatu beharko du kontratua gauzatzean eskuratzen duen informazioaren konfidentzialtasuna, baldin eta agirietan edo kontratuan izaera hori eman bazaio edo bere izaeragatik hala tratatu behar bada.

Konfidentzialtasun-betebehar hori Azalaren 18. puntuan adierazitako epean mantenduko

20. ERANTZUKIZUNA

Kontratista izango da garatzen dituen lanen kalitate teknikoaren, egindako prestazioen eta zerbitzuen erantzule, bai eta kontratua gauzatzean izandako omisioen, akatsen, metodo desegokien edo ondorio okerren ondorioz entitate kontratatzaileari edo hirugarrenei erator dakizkiekeen ondorioen erantzule ere.

Kontratistaren betebeharra izango da kontratua gauzatzeko beharrezkoak diren eragiketen ondorioz hirugarrenei eragindako kalte eta galerak osorik ordaintzea.

21. ASEGURUAK

Kontratistak, kontratuaren iraupen osorako eta bere kontura, Azalaren 20. puntuan adierazitako aseguruak kontratatuko ditu, bertan ezarritako baldintza eta terminoetan.

22. ZEHAPENAK

a) Atzerapenagatiko zehapenak

Kontratistak, hari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, Agiri honetan eta/edo Azalean ezarritako epeetako edozein betetzean atzerapena badu, entitate kontratatzaileak aukera izango du, modu alternatiboan, kontratua suntsiarazteko —Agiri honetako 33. klausulan ezarritakoaren arabera— edo kontratua gauzatzen jarraitzeko; azken kasu horretan, entitate kontratatzailearen alde sortuko dira, dagozkion kalte-ordainez gain, Azalaren 21. puntuan adierazitako zehapenak.

Kontratista berandutzan erortzeko ez da beharrezkoa izango entitate kontratatzailearen aurretiazko errekerimendurik.

b) Kontratatutako prestazioen exekuzio akastunagatik edo kontratu-baldintzak ez betetzeagatik ezarritako zehapenak

Kontratistak, hari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, kontratatutako prestazioak akatsez gauzatzen baditu edo kontratuko beste edozein baldintza betetzen ez badu, entitate kontratatzaileak aukera izango du, modu alternatiboan, kontratua suntsiarazteko —Agiri honetako 33. klausulan ezarritakoaren arabera— edo kontratua gauzatzen jarraitzeko; azken kasu horretan, entitate kontratatzailearen alde sortuko dira, dagozkion kalte-ordainez gain, Azalaren 21. puntuan adierazitako zehapenak.

Zehapenak kontratistari ordainketa oso edo partzial gisa ordaindu beharreko zenbatekoetatik kenduz gauzatuko dira, edo bermearen kontura, zenbateko horietatik kendu ezin direnean; bermea gainditzen duten zenbatekoak dagokion erreklamazioaren xede izango dira.

Nolanahi ere, bai kontratua suntsiarazteko aukera hartzen denean bai kontratua gauzatzen jarraitzea erabakitzen denean, entitate kontratatzaileak aldebakarrez erabaki

ahal izango du kontratuarekin jarraitzea beharrezkotzat jotzen duen denboran, bere baliabideekin edo hirugarrenen bidez; bi kasuetan, jarraipen horren kostua kontratistari egotziko zaio, klausula honetan aurreikusitako kalte-ordainei eta gainerako ondorioei kalterik egin gabe.

23. JABETZA INTELEKTUALA ETA/EDO INDUSTRIALA

Kontratistak, bere kontura bakarrik, baimendutako iturrietatik eskuratu beharko ditu Agiri honetan eta Baldintza Teknikoen Agirian ezarritakoaren arabera kontratuaren xede diren zerbitzuak gauzatzeko atxiki, eman eta/edo mantendu behar dituen ekipamendu informatikoen (hardware eta softwarea) edo beste edozein ekipamendu eta/edo baliabide osagarriren erabilera- eta/edo ustiapen-lizentziak eta eskubideak.

Era berean, kontratazio honi erabat aplikatuko zaio SPKLren 308.1 artikuluan xedatutakoa. Horrenbestez, kontratuaren xede diren zerbitzuen exekuzioaren emaitzaren jabetza, osorik edo edozein fasetan, entitate kontratatzailearena izango da esklusiboki. Hori guztia, Jabetza Intelektualaren Legearen Testu Bategina onartzen duen apirilaren 12ko 1/1996 Legegintzako Errege Dekretuan eta/edo uztailaren 24ko 24/2015 Patenteen Legean ezarritakoaren arabera kontratistari legozkiokeen egilearen eskubide moralak eta/edo asmatzaile gisa aitortua izateko eskubidea errespetatzeari kalterik egin gabe; eskubide horiek entitate kontratatzaileak behar bezala errespetatu beharko ditu.

Ondorioz, eta hala badagokio Azalaren 19. puntuan berariaz ezar daitekeenari kalterik egin gabe, kontratistak entitate kontratatzaileari bermatu beharko dio kontratuaren xede diren zerbitzuen emaitzaren erabilera baketsua, eta, hala badagokio, emaitza horren parte den edozein elementuren gaineko lizentziak eta eskubideak legez eta baimendutako iturrietatik eskuratzeko konpromisoa hartuko du; entrega egiten den unean adierazi beharko du emaitza horrek ez duela inolako konpromiso edo kargarik entitate kontratatzaileari kontratazio honen ondorioz dagozkion eskubideen aurka.

Nolanahi ere, kontratista izango da kontratutik kanpoko hirugarrenek Jabetza Intelektualari eta/edo Industrialari buruz aurkez ditzaketen erreklamazioen erantzule, honako hauei dagokienez:

Zerbitzuak ematean Jabetza Industrial edo Intelektualeko eskubideek babestutako materialak, tresnak eta gainerako baliabideak erabiltzea.
Kontratazio honen xede diren zerbitzuen emaitza eta/edo emaitza horren parte den edozein elementu.

Aurrekoa kontuan hartuta, kontratistak entitate kontratatzaileari kalte-ordaina eman beharko dio kontzeptu horiei buruzko erreklamazioetatik erator daitezkeen kalte eta galerengatik.

24. KONTRATUAREN LAGAPENA

SPKLren 98. artikuluan aurreikusitako kontratistaren ondorengotza-kasuak alde batera utzita, kontratuaren aldaketa subjektiboa kontratu-lagapenaren bidez baino ezingo da egin, klausula honetan ezarritako mugen barruan eta aukera hori Azalaren 22. puntuan berariaz aurreikusita badago.
Lagapena egiteko, SPKLren 214.2 artikuluko a), b), c) eta d) letretan eskatutako betekizunak bete beharko dira, hain zuzen ere:

a)

Kontratazio Organoak lagapena aurrez eta berariaz baimentzea, SPKLren 214.2.a) artikuluan adierazitako baldintzetan. Baimen-eskaerari buruzko ebazpena jakinarazteko epea bi hilabetekoa izango da; epe hori igaro ondoren, baimena emandakotzat joko da.

b)

Lagapen-egileak kontratuaren zenbatekoaren gutxienez ehuneko 20 exekutatuta izatea, SPKLren 214.2.b) artikuluan adierazitako baldintzetan.

c)

Lagapen-hartzaileak sektore publikoko erakundeekin kontratatzeko gaitasuna izatea, eskatutako kaudimen ekonomiko eta finantzarioa eta tekniko edo profesionala edukitzea eta kontratatzeko debekuren batean ez egotea, SPKLren 214.2.c) artikuluan adierazitako baldintzetan.

d)

Lagapena esleipendunaren eta lagapen-hartzailearen artean eskritura publiko bidez formalizatzea, SPKLren 214.2.d) artikuluan adierazitako baldintzetan.
Lagapen-hartzailea lagapen-egileari zegozkion eskubide eta betebehar guztietan subrogatuko da.

25. AZPIKONTRATAZIOA

Kontratistak hirugarrenekin hitzartu ahal izango du prestazioaren zati baten gauzatzea, klausula honetan eta SPKLren 215. artikuluan xedatutakoaren arabera, salbu eta, hala badagokio, Azalaren 23. puntuan adierazitako prestazioak.

Kontratistak idatziz jakinarazi beharko dio Kontratazio Organoari, kontratua esleitu

ondoren eta, beranduenez, kontratua gauzatzen hasten denean, azpikontratuak egiteko asmoa duela; horretarako, azpikontratatu nahi den prestazioaren zatia, azpikontratistaren nortasuna, harremanetarako datuak eta legezko ordezkaria edo ordezkariak adierazi beharko ditu, eta behar bezala justifikatu beharko du haren gaitasuna prestazioa gauzatzeko, dituen baliabide tekniko eta giza baliabideei eta haren esperientziari erreferentzia eginez, bai eta SPKLren 71. artikuluaren arabera kontratatzeko debekuren batean ez dagoela egiaztatuz ere.

Kontratista nagusiak idatziz jakinarazi beharko dio Kontratazio Organoari informazio horretan kontratu nagusia gauzatzean gertatzen den edozein aldaketa, bai eta azpikontratista berriei buruzko beharrezko informazio guztia ere.

Azpikontratistak azpikontratazioaren xede den kontratu-zatia egiteko sailkapen egokia badu, inguruabar hori jakinaraztea nahikoa izango da haren gaitasuna egiaztatzeko.

Azpikontratistaren gaitasuna egiaztatzea azpikontratua egin ondoren berehala egin ahal izango da, hori beharrezkoa bada larrialdi-egoera bati edo premiazko neurriak hartzea eskatzen duen egoera bati erantzuteko, eta behar bezala justifikatzen bada.

Azpikontratistak kontratista nagusiaren aurrean baino ez dira lotuta geratuko; kontratista nagusiak bere gain hartuko du, beraz, kontratua gauzatzearen erantzukizun osoa entitate kontratatzailearen aurrean, agiriei eta kontratuaren baldintzei zorrotz jarraituz, SPKLren 201. artikuluan aipatzen diren ingurumen-, gizarte- edo lan-arloko betebeharrak betetzea barne.

Entitate kontratatzaileak kontratista nagusiak egindako azpikontratuen berri izateak ez du aldatuko kontratista nagusiaren erantzukizun esklusiboa.

Azpikontratisten eta hornitzaileen ordainketa, bai eta ordainketa horien egiaztapena ere, SPKLren 216. eta 217. artikuluetan xedatutakoaren arabera egingo dira.

26. KONTRATUAREN ALDAKETAK

Kontratazio Organoak kontratua aldatu ahal izango du SPKLren 205. artikuluan aurreikusitako kasuetan.

Horrez gain, Kontratazio Organoak kontratua aldatu ahal izango du Azalaren 24. puntuan aukera hori berariaz aurreikusten denean, bertan ezarritako termino eta baldintzetan.

Kontratuaren aldaketek ezin izango dute ekarri kontratuan aurreikusi gabeko unitateko prezio berriak ezartzea.

Kontratuaren aldaketak SPKLren 153. artikuluan xedatutakoaren arabera formalizatu beharko dira.

27. HARRERA ETA BERME-EPEA

Kontratua kontratistak betetzat joko da, baldin eta kontratuaren baldintzen arabera eta entitate kontratatzailearen gogobetetzearekin prestazio osoa gauzatu badu.

Harrera partzial bakoitzean, hala badagokio, bai eta harrera osoa egitean ere, entitate kontratatzaileak zehaztuko du kontratistak egindako prestazioa hura gauzatzeko eta betetzeko ezarritako preskripzioetara egokitzen den ala ez; hala badagokio, kontratatutako prestazioak gauzatzeko eta harreran antzemandako akatsak zuzentzeko eskatu ahal izango du.

Egindako lanak kontratatutako prestaziora egokitzen ez badira, kontratistari egotz dakizkiokeen akats edo hutsen ondorioz, entitate kontratatzaileak prestazioa baztertu ahal izango du; kasu horretan, ordainketa egiteko betebeharretik salbuetsita geratuko da edo, hala badagokio, ordaindutako prezioa berreskuratzeko eskubidea izango du.
Hori guztia 27. klausulan aurreikusitakoari kalterik egin gabe; entitate kontratatzaileak dagozkion zehapenak eskatu ahal izango ditu, bai eta kalte-ordainak ere, atzerapenagatik, kontratatutako prestazioen exekuzio akastunagatik eta/edo kontratuko beste edozein baldintza ez betetzeagatik.
Berme-epea Azalaren 25. puntuan adierazten da.
Berme-epe horretan egindako lanetan akats edo hutsak daudela egiaztatzen bada, Kontratazio Organoak kontratistari horiek zuzentzeko eskatzeko eskubidea izango du.
Berme-epea amaitzen bada Entitate Kontratatzaileak klausula honetan aipatutako eragozpen edo salaketaren bat formalizatu gabe, kontratista egindako prestazioaren ondoriozko erantzukizunetik salbuetsita geratuko da.

28. KONTRATUAREN ETENDURA

Entitate kontratatzaileak kontratua eten ahal izango du, baldin eta kontratistari SPKLren 208.2 artikuluan aurreikusitako kalte-ordainak ordaintzen badizkio; artikulu hori berariaz aplikagarritzat jotzen da ondorio horietarako.

29. KONTRATUAREN AZKENTZEA

Kontratua amaitutzat joko da hura betetzeagatik edo jarraian araututakoaren arabera adostutako suntsiarazpenaren bidez.
Honako hauek izango dira kontratua suntsiarazteko arrazoiak, entitate kontratatzailearen borondatez:

a)

Konkurtso-adierazpena edo beste edozein prozeduratan kaudimengabezia deklaratzea.

b)

Kontratistak epeak betetzean izandako atzerapena.

c)

Kontratuaren betebehar nagusia ez betetzea.

d)

Gainerako funtsezko betebeharrak ez betetzea, baldin eta halakotzat jo badira.

e)

Prestazioa hasieran hitzartutako baldintzetan gauzatzeko ezintasuna, kontratua Agiri honetan aurreikusitakoaren arabera aldatzea posible ez denean.

f)

Kontratua gauzatzean kontratistak lan horietan parte hartzen duten langileei soldatak ez ordaintzea, edo langile horientzat aplikagarriak diren hitzarmen kolektiboetan ezarritako baldintzak ez betetzea, kontratua gauzatzen den bitartean.

g)

Oro har, kontratu-betebeharren edozein ez-betetze, Kode Zibilaren 1.124 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

h)

SPKLren 313. artikuluko 1. apartatuan ezarritako kontratua suntsiarazteko arrazoiak, berariaz aplikagarritzat jotzen direnak; hauek dira:

1.
Zerbitzuak ematen hasi aurretik atzera egitea edo, Kontratazio Organoari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, kontratuaren hasiera etetea lau hilabetetik gorako epean, kontratua hasteko bertan adierazitako datatik aurrera zenbatuta.

2.
Zerbitzua ematen hasi ondoren atzera egitea edo Kontratazio Organoak kontratua zortzi hilabetetik gorako epean etetea erabakitzea.

Klausula honetan aurreikusitako edozein suntsiarazte-arrazoi gertatzen denean, suntsiarazpena automatikoki gauzatuko da, entitate kontratatzaileak kontratistari horretarako hartutako erabakia modu fede-emailean jakinaraztea baino baldintza gehiagorik gabe.

Jakinarazpen hori jaso ondoren, kontratistak berehala entregatu beharko dizkio entitate kontratatzaileari, haren eskura jarriz, kontratatutako prestazioak gauzatzeko ordura arte prestatutako dokumentu guztiak, bai eta kontratuaren ondorioz sortutako gainerako dokumentazioa edo informazioa ere, kontratistari entitate kontratatzaileak emandako eta erabilitako dokumentuekin batera; guztiak entitate kontratatzailearen jabetzara igaroko dira.

Hori guztia, ondoren egin beharreko kontratuaren likidazio ekonomikoari kalterik egin gabe, jarraian xedatutakoaren arabera.

Klausula honetan aurreikusitako arrazoiengatik kontratua suntsiaraztearen ondorioz sor daitezkeen erantzukizun ekonomikoak, bai eta legez bidezkoak izan daitezkeen beste edozein ere, kontratua benetan suntsiarazi ondoren likidatuko dira; horrek ez du eragotziko entitate kontratatzaileak kontratua gauzatzen jarraitu ahal izatea.
Suntsiarazpen-kasu guztietan, kontratistak, printzipioz, benetan egin eta onartutako prestazio guztien prezioa jasotzeko eskubidea izango du.
Kontratua kontratistari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik suntsiarazten denean, entitate kontratatzailearen alde sortuko da, dagozkion kalte-ordainez gain eta metagarri gisa, Azalaren 26. puntuan aurreikusitako zenbatekoa. Bi zenbateko horiek behin betiko bermetik eta kontratistari ordaintzeke dagoen preziotik kenduko dira, eta soberakina dagokion erreklamazioaren xede izango da.

Hala ere, aurrekoa gorabehera, berariaz deklaratzen da SPKLren 313. artikuluko 3. apartatua aplikagarria dela; hau da:

a)

Klausula honetako h.1 letran aurreikusitako suntsiarazpen-kasuetan, kontratistak kontratuaren esleipen-prezioaren %3ko kalte-ordaina baino ez du jasotzeko eskubidea izango kontzeptu guztiengatik (BEZa kanpo).

b)

Klausula honetako h.2 letran aurreikusitako suntsiarazpen-kasuetan, kontratistak emateke geratutako zerbitzuen kontratuaren esleipen-prezioaren %6 jasotzeko eskubidea izango du industria-onuraren kontzeptuan (BEZa kanpo).
Azkenik, kontratua entitate kontratatzailearen eta kontratistaren arteko adostasunez ere suntsiarazi ahal izango da; kasu horretan, alderdien eskubideak haiek balioz ezarritakoaren arabera arautuko dira.

30. ARAUBIDE JURIDIKOA

Kontratua izaera pribatukoa da, eta haren prestaketari dagokionez, Administrazio Klausula Berezien Agiri honek eta Baldintza Teknikoen Agiriak arautuko dute; eta esleipenari dagokionez, Administrazio Klausula Berezien Agiri honek, Baldintza Teknikoen Agiriak eta, horietan aurreikusi gabeko guztian, SPKLn ezarritako arauek (botere esleitzaile izaera duten eta Administrazio Publikoa ez diren sektore publikoko erakundeek egindako harmonizatutako araubideari lotu gabeko kontratuetarako) arautuko dute.
Kontratuaren ondorioei eta azkentzeari dagokienez, Administrazio Klausula Berezien Agiri honek, Baldintza Teknikoen Agiriak eta, horietan aurreikusi gabeko guztian, zuzenbide pribatuko arauek arautuko dute. Hala ere, kontratuari aplikatuko zaizkio SPKLren 319. artikuluan "Ondorioak eta azkentzea"ri buruz ezarritako arauak.
Horrez gain, SPKL eta urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretua —Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra onartzen duena— aplikatuko dira Agiri honek arau-testu horietara berariaz jotzen duen guztian.

31. JURISDIKZIOA

Administrazioarekiko auzien jurisdikzio-ordena izango da eskuduna kontratuaren prestaketari, esleipenari eta kontratu-aldaketei buruzko auziak ebazteko, azken horien aurkako inpugnazioa SPKLren 204. eta 205. artikuluetan ezarritakoa ez betetzean oinarritzen denean eta aldaketa hori esleipen berri baten xede izan behar zela ulertzen denean.

Hala badagokio, errekurtsoa aurkeztuko da Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean xedatutakoaren arabera, HAZI FUNDAZIOA atxikita dagoen Sailaren titularraren aurrean.

Jurisdikzio zibileko ordena izango da alderdien artean kontratuaren ondorioei eta azkentzeari buruz sortzen diren eztabaidak ebazteko eskuduna, klausula honetako lehen paragrafoan aipatutako kontratu-aldaketak salbu.

I. ERANSKINA. ABAL-EREDUA

[…] erakundeak (kreditu-erakundearen edo elkarrekiko berme-sozietatearen sozietate-izena), IFK […], egoitza […] helbidean duena (jakinarazpen eta errekerimenduetarako), eta haren izenean […] jaunak/andreak (ahaldunen izen-abizenak), egintza honetan lotzeko ahalmen nahikoekin —dokumentu honen behealdean jasotako ahalordeen egiaztapenetik ondorioztatzen denez—, ABALA EMATEN DIO: […] jaunari/andreari edo sozietateari (abalatuaren izen-abizenak edo sozietate-izena), IFK […], […]-ren aurrean, […] euroko zenbatekoan, […] kontratutik

eratorritako betebeharrei erantzuteko.

Erakunde abal-emaileak bere erantzukizunpean adierazten du Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra onartzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren 56.2 artikuluan aurreikusitako betekizunak betetzen dituela. Abal hau modu solidarioan ematen da obligaziopeko nagusiari dagokionez, eskusio- eta zatiketa-onurari berariaz uko eginez eta […]-ren lehen errekerimenduan ordaintzeko konpromisoarekin.

Abal hau indarrean egongo da […]-k haren baliogabetzea edo itzulketa baimendu arte. […]-n, […].eko […]aren […]an.

[Sinadura]

II. ERANSKINA. ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAREN EREDUA, LIZITATZAILEAK ESKATUTAKO KAUDIMENA ETA/EDO BALIABIDEAK ATXIKITZEKO KONPROMISOA BESTE ERAKUNDE BATZUEN KAUDIMENEAN ETA/EDO BALIABIDEETAN OINARRITU NAHI DUENERAKO

[OHARRA: Agiri hau soilik aurkeztu beharko da lizitatzaileak eskaintzarik onena aurkeztu badu eta eskatutako kaudimena eta/edo baliabideak atxikitzeko konpromisoa egiaztatzeko beste erakunde batzuen kaudimenean eta/edo baliabideetan oinarritu nahi badu. Hirugarren erakundeak bete beharko du.]

[…] jaunak/andreak, NAN […], […] enpresaren legezko ordezkari gisa, IFK […], adierazten du ezagutzen dituela bere osotasunean […] kontratatzeko lizitazioaren baldintzak —[…] lizitatzaileak (enpresa lizitatzailearen izena) parte hartzen duen lizitazioa—, eta modu ezeztaezinean adierazten du, lizitatzaile hori esleipendun gertatuz gero, kontratua gauzatzeko beharrezko baliabideak haren eskura jarriko dituela, Kode Zibilaren 1257.2 artikuluan xedatutakoa berariaz onartuz; baliabide horien ordezkapena edo aldaketa […]-k berariaz baimendu beharko du.

Idazki hau […]-ren aurrean aurkezteak konpromiso hori onartutzat joko da, kasuan kasuko lizitatzailea esleipendun gertatzen bada.

[…]-n, […].eko […]aren […]an.

[Sinadura]

III. ERANSKINA. EUROPAKO KONTRATAZIO AGIRI BAKARRA (EKAB)

IV. ERANSKINA. JAKINARAZPENAK JASOTZEKO LEHENTASUNEZKO BIDEAREN IZENDAPENA

[…] jaunak/andreak, egoitza […] helbidean eta NAN zk. […], bere izenean edo […]-ren ordezkaritzan, egoitza […] helbidean eta NAN edo IFK zk. […], bere gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoaz, […] lizitazioaren berri izanik, honako honen bidez, lehentasunezko bide gisa izendatzen du […]-k lizitazio honen ondorioz egin behar duen edozein jakinarazpen jasotzeko honako hau (*):

Posta elektronikoa.
Posta ziurtatua.
Faxa.
(*) Adierazi hautatutako bidea.
Nolanahi ere, jakinarazpenetarako, honako datu hauek adierazten dira:
Posta elektronikoko helbidea: …….
Posta-helbidea: ……..
Fax zenbakia: ……..
Harremanetarako telefonoa(k): ……..

[Oharra: Jakinarazpenak arinago egiteko, lizitatzailearen posta elektronikoa lehentasunezko bide gisa izendatzea gomendatzen da; bide hori guztiz baliozkoa izango da jakinarazpenetarako, lizitatzaileak berak adierazitako bidea delako. Hala ere, beste bide bat ere izendatu ahal izango da lehentasunezko gisa.

Izendapen hori egiten ez bada, jakinarazpena posta ziurtatu bidez egingo da adierazitako helbidean.]

V. ERANSKINA. FORMULEN BIDEZ BALORA DAITEZKEEN IRIZPIDEEI BURUZKO PROPOSAMENA

[…] jaunak/andreak, egoitza […] helbidean eta NAN zk. […], bere izenean edo […]-ren ordezkaritzan, egoitza […] helbidean eta NAN edo IFK zk. […], bere gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun osoaz, […] kontratatzeko […] prozeduraren bidezko lizitazioaren berri izanik, honako honen bidez

ADIERAZTEN DU

1.

[…] kontratua gauzatzeko konpromisoa hartzen duela, honako baldintza hauen arabera:

Eskainitako prezioa: …….....…. euro (BEZik gabe).

Eskainitako prezioa: ..... euro (BEZa barne).

Genero-ikuspegia: ……...

2.

Kontratua arautzen duen kontratu-dokumentazioa ezagutzen duela, eta berariaz bere gain hartzen eta osorik onartzen duela.

[…]-n, […].eko […]aren […]an.

[Sinadura]